

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

«Nire txiringitoa»

Maritxu Sanz (LAB-Irakaskuntzaren izenean)

Donostiako Bidebieta auzoan dagoen Hirusta Haur Eskola pribatuko zuzendariak dagozkien eskubide laboralak errebindikatzegatik 4 langile kaleratu eta ordezkari sindikala espedientatu du. Neurri «demokrata-legal» hori salatzeko, eta iritzi publikoari Haur Eskola eta babes legala ematen dion «irabazi asmorik gabeko» pro-guarderia Bidebieta-Hirusta Elkarteari buruzko hainbat datu eman beharra diogula deritzogu.

Azken urteetan esandako Elkarrekin prozedura burokratikoak ofizialki bete duen arren, erabateko funtzionamendu irregularra izan du, zuzendariak dioen moduan bai elkarteak bai haur eskola «nire txiringitoa» bihurtuz. Gaurko junta zuzendariaren familiakoez nahiz lagunez osaturik dago; botere guztiak zuzendariarengan ordezkatu dituzte, eta haren funtzionamendu diktatoriala ahalbidetu. Bazkide izateko eskaerak atzera bidaltzea, bilerarik ez egitea, erabakiak pertsona batek hartzea eta abar ohiko bihurtu da.

Horretan elkarte horiei buruz dagoen legedi eskasak laguntzen du, Elkarrekin Erregistroak nahikoa baitu paper ofizialen aurkezpenarekin, salaketak egon arren inongo jarraipenik ez baitu egiten.

Haur Eskola pribatua da, eta zuzendariak horren alde egiten du lana soilik, zigortutako irakasleen ondoko eskola publikoarekin egin dituzten saio pedagogikoak mozturik. Baina, gurasoek kuota ordaintzen duten arren, aurrekontua batez ere hornitzen da jasotzen dituen subentzioei esker, eta erabiltzen dituen lokalak ere publikoak dira. Hala ere, Donostiako Udalak ez du inongo adierazpenik egin orain arte.

Azken bi kurtsoetan arazo laboralak areagotzen ari zirela eta, esparru sindi-



galdeiozu...

Gustatzen al zaizu dantzatzuz euskalduna zarela adieraztea?

Antonio Zuñiga (Mexiko)

Dantza edozein kulturaren adierazgarri denez, euskal dantzak beti izango dira euskal kulturaren zati garrantzitsu bat. Niri dantzatzeko ikaragarri gustatzen zait, baita dantza tradizionala ez dena ere, baina euskal dantzak askoz ere gustukoagoak ditut, nire herriko dantzak baitira. Azken finean, euskal dantzak egiten ditudanean euskalduna naizela adierazten dut, eta horretaz oso harro nago.



**AIERT
BEOBIDE**

Euskal Herriko aurreko dantzari txapelduna

Abuztuan ez da Galdeiozu atalik izango.

kalera jo zuten, eta hori egiteagatik zuzendariaren mehatxuak jaso zituzten. Zuzendaritzak bitarte honetan guztian adierazi duen jarrera bakar gaiaz hitz egitearen edo negoziatzearen aurkakoa izan da; areago oraindik: bere abokatuarekin ados jarri garenean, hitzartutakoa bertan behera utzi du, eta bide bakar bat utzi digu: salaketa judiziala.

Estatuko lan hitzarmena ezartzen die. Irakaskuntzako eskasena izanik, horren aspektu bakar bat aplikatzen die: soldata. Bera eta zuzendari pedagogikoa Elkarrekin kontratatutak dira, baina beraiegan ez du hitzarmena aplikatzen, eta langileen arteko desberdintasunak sortu eta trataera diskriminatorioa erabiltzen du. Orain arte ez zegozkien lanak bete behar izan dituzte. Kontratu prekarioen menpean. Langileen kotizazioak gaizki ordaintzen ditu. Dagozkien opor egunak ez ditu errespetatu izan, lan-egutegia modu arbitrarioan erabiltzen du... eta bidegabeko egoera honen amaiera kalera-keretan eta espedienteetan datza, kur-

tsoa bukatu baino 15 egun lehenago. Noiz arte honelako egoeran, txiringitoaren prozeduran?

Zigorrik eta kaleratzerik ez!

Konstituzioa eta autodeterminazioa

Xabier Galardi • OIARTZUN

«Mundu osoan ez dago konstituziorik autodeterminazio eskubidea onartzen duenik», esan omen du Aznar jaunak. Hori esatea, iruzur egiteaz gain, gezurra esatea da, zeren Espainiako Konstituzioak berak 10. artikuluan, 2. atalean, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak eta Nazioarteko tratatuek diotena aintzakotzat eta erreferentzia juridikotzat hartzea eskatzen baitu. Tratatu horiek esplizituki aipatzen dute Herrien Autodeterminazio Eskubidea. Ikus dezagun zer dioten:

1) Nazio Batuek «laguntasunezko harremanak eragingo dituzte nazioen artean, herrien eskubideen berdintasun printzipioan eta berorien autodetermi-

nazio eskubidean oinarritutak» (Nazio Batuen Agiria, art.1,1,1945).

2) «Herri guztiek dute autodeterminatzeko eskubidea. Beronen izenean, herriok erabakitzen dute libreki bere estatutu politikoa, eta libreki ziurtatzen dagozkien garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala» (NBE, art.1,1,Giza Eskubideei dagozkien Nazioarteko Paktoak, 1966).

3) Era berean, Herrien Autodeterminazio eskubidea Helsinkiko Deklarazioaren 8. printzipioan jasotzen da; azkeneko aktan agertzen da, eta akordio horretan esku hartzen duten Estatuak elkarrekiko harremanetarako printzipio gidatzaileak adierazten du, hain zuzen (Helsinkiko Deklarazioa, 8. printzipioa). Beraz, Aznar jaunak Espainiako Konstituzioko 10. artikulua eta dagozkion erreferentziatzko testuak hobeto irakurri beharko lituzke.

Kristal hautsien kalea

Joseba Barandiaran • BILBO

Bilboko alkate jauna, berori ez da Bilbo Zaharrean bizi, ziur. Bailen eta San Frantzisko kaleak ere, non dauden jakin arren, ez ditu sarri zapaltzen, ziur. Bestela, Azkuna jauna, berorrek jakin behar luke Bilbon badela kristal hautsien kaleren bat edo beste. Autoa kalean uzteak dexenteko ausardia eskatzen duen kantoiaren bat edo beste. Lapurretak zein bestelako erasoak ohiko dira inguru honetan. Estatistikei begiratzea ondo dago, baina jakin dezala jaun horrek bizilagunok ez ditugula gertatutako eraso guztiak salatzen. Zorrozaurreko auto biltegian ondo dakite horren berri: salaketak han bertan jartzea zergatik ez du ahalbidetzen? Horrela, agian, jaun horrek ikusiko luke Bilbok segurtasun arazo larri bat duela. Hiria- ren lehentasun eta beharrak finkatzea berorri dagokio, Azkuna jauna. Datorrela sarriago «Bilbo La Vieja, meatzari auzora».

montxo

